

## Tresnak eta formakuntza



ARKAITZ ZARRAGA  
AZUMENDI  
EUSKARA IRAKASLEA

“biliz ikasten da ibiltzen, eta kantuan kantatzen”. Horixe izan da aste honetako ikasgaietako bat C2ko taldeetan. Helburua ez zen abesten edo oinez ikastea, gerundioa behar bezala erabiltzea baizik. Zer pentsatua eman dit jarduerak, eta irakasten nola ikasten dugun galdetu diot neure buruari. Askori entzun diot batzuk irakasle jaio direla, baina ikasi ere egin daiteke. Izan ere, laguntzeko nahia eta jarrera oinarrizkoak izanik ere, teknikak ere laguntzen du.

Eskolan aspaldi hasi ginenok hainbat joera didaktiko baliatu ditugu, eta batzuk sufritu. Oraindik dauzkatzat gogoan solfeoko “teoria” liburu gogaikarri haiek, erdaraz denak, “pentagrama”, “intervalo”, “sinco-pa”... zer diren buruz ikastera bideratuak. Baina, azterketan galdetu egiten zuten, eta ikasi behar.

Didaktika arloan asko idatzi izan da metodologia bakoitzaren inguruan, gehienetan aurrekoak zuzentzera begira, eta, sarritan, haien aurka. Hizkuntzaren irakaskuntzan, esaterako, errepikapenean oinarritutako metodo audiolinguala, morfema eta lexemak bereiztera bideratutako estrukturalak, aditz eta izen sintagmen eta zuhaitz sintaktikoen gramatikalak, testuen arkitekturan oinarritutakoak... Baina askotan curriculumak idazten dituztenak urrun egoten dira ikasgeletatik, eta irakasleak galduta ibili ohi dira irizpi-

de berriak eskolara nola eraman asmatu ezinik.

Horrelakoetan, sarritan, ikasleak kontzeptu berriekin bonbardatu, eta kontzeptu metalinguistikoez behar baino espazio handiagoa hartzen dute ikasketa-prozesuetan. Izan ere, lagun batek dioen bezala, badira irakurtzen ez dutenak baino arriskutsuagoak: liburu bakarra irakurri dutenak.

Egun kohesioa, koherentzia, egokitasuna... dira totem berriak, eta institutuetao gazteek eta euskaltegietao helduek horien beldurrez eratzten dituzte artikulu eta monologoak. Baina, egungo euskara irakasteon helburua litzateke ikasleek euskara erabili eta gozatzea, eta egun ditugun testu teoriko-didaktikoak helduleku egokia izan daitezke hori lortzeko.

Kontua da irakasle gehienek metodologia bakoitzaren abaroen sortutako baliabide didaktikoak erabiliz barneratu ohi dituztela jokamolde berriak, hau da, ariketa motek erakusten digute nola irakatsi. Jakina, tresna horiek ezagutza teorikoekin uztartuta, emaitza askoz hobea izango da. Horregatik, material didaktiko egokietan eta formakuntzan inbertitzea funtsezkoa da ikasle eta irakasleok ikas dezagun.

Kantatzen ikasi eta kantatuz gozatzeko ere kantak erakutsi eta teknika egokiak eskura jarri behar dizkiegu ikasleei; eta kantarazi, sinkopak eta interbaloak zer diren ez badakite ere. ●

## Bi begien artean



EDU ZELAIETA ANTA  
IRAKASLEA ETA  
IDAZLEA

Aste oso batez aritu gara Collodiren *Pinotxoren abenturak* liburuaren inguruan, unibertsitateko ikasgelan, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakasleekin. Gure erreferentzia nagusia Galtzagorrik 2011n argitara emandako edizio ederra izan da -hitzaurrea barne, 171 orrialde ditu-, baina euskarazko zein gaztelaniazko beste bertsio batzuk ere ikusi ditugu. Testu osoak nahiz egokitzapenak. Agian, gorde-agerian, luzatu zaio bakarren bati sudurra pixka bat jardunean...

Aspaldiko greziarrek hainbestetan aipatzen zuten patuak nahi izan du guk *Pinotxoren astea* deitutako horretan Trump

irabazle suertatzea AEBetako hauteskundeetan: agian, zurezko panpinak bezala, Trumpek ere boterearen oholztan dantzatu du bere itzala, itxura eta egia bereizten (ez) dituen lerro lausoaren gainean.

Pinotxori ez bezala, ordea, gezur usteletan ibiltzeak ez dio ondorio txarrik ekarri Trumpi, eta hurrengo hilabeteetan egurraren luzeak ikusteko gaudela ematen du. Munduko potentzia ekonomiko-militararren bertsiorik makurrena.

Metaforak zer diren: *Pinotxoren astea* ere luzatu zaigu fakultatean.

Eta egia ala gezurra, bi begien artean sudurra. ●